

Aurrera segitzen du bere eraldaketa planean

EROSKI-K 22 DENDA BIRMOLDATUKO DITU BALEARRETAN, 8 MILIOI EURO INBERTITUTA

- **EROSKIren asmoa da belaunaldi berriko 65 denda irekitzea Balearretan aurten**
- **Kooperatiba lanean ari da hango 120 hornitzaile ingururekin, eta 98 milioi euro baino gehiagoren erosketak egiten dizkie**
- **413.000 kontsumitzaile baino gehiago dira EROSKIren Bezero bazkideak Balearretan**

Mallorca, 2018ko maiatzaren 11.- [EROSKI](#)k zortzi milioi euro inbertituko ditu 2018an Balearretan dituen saltokiak Zurekin eredu komertzialera egokitzeko. Hala, bezeroei tratu pertsonalagoa emango die, eta era berean tokiko produktuen eta sasoiko produktu freskoen salmenta indartu, elikadura osasungarria sustatu eta eguneroko erosketan aurrezteko modu berriak eskainiko ditu.

22 denda eraldatu eta batzuk handitu egingo dituzte; horietatik hamasei Mallorcan, lau Menorcan eta bi Ibizan. Joan deneko bi urtean, EROSKI k bultzada indartsua eman dio Balearretan Zurekin eredu komertzialari; hain zuzen ere, 24 supermerkatu eraldatu ditu, eta frankizia erako hemeretzi denda ireki.

Eraldatze lanetan, batez ere freskoetan jarri dute ardatza; erabat berri dute freskoen eremua, balioa emateko produktu sorta zabalari, eta, oro har, tokiko eta sasoiko janariaren aldeko apustua indartu da. Kooperatibak Balearretako 1.200 produktu baino gehiago saltzen ditu, eta hitzarmenak eginak ditu hango 120 hornitzaileekin, 98 milioi euro baino gehiagoren erosketak egiteko. Gainera, beste 1.000 produktu gehiago egongo dira orain dendetan, kontsumitzaileari aukera askatasun handiagoa emateko, fabrikatzaileen marken, marka propioen eta tokiko ekoizleen artean.

"Gure saltokiak beren inguruan ekoizten diren jangaiak merkaturatzeko plataforma irekiak dira. Kontsumitzaileari modu eskuragarrian jartzen dizkiogu bere eskualdeko elikagaiak, geure eguneroko ohituretan txertatzeko, eta aldi berean, ekoizpen ehuna askotarikoa duen nekazaritzako elikagaien sektorea indartzen dugu, funtsezkoa baita haren iraunkortasunerako eta ekonomiari, kulturari, eta gure ingurunearen ingurumen kalitateari ekarpena egiteko", azaldu du EROSKI k Balearretan duen zuzendariak, Alfredo Herraizek.

Produktu dietetiko eta biologikoetarako eremua handiagoa izango da eraldatuko diren dendetan; hala, gaur egungo elikadura joera guztiak biltzen dituzten guneak jarriko dira. Gainera, atal horretan, produktu espezifikoko sorta zabal bat egongo da, elikagai intolerantziak dituztenentzat (glutena, laktosa...) eta gantz, azukre eta

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

gatz gutxi jan behar dutenentzat. Horretaz gainera, lurrindegri-parafarmaziaren atal berrituak ere lehen baino toki handiagoa hartuko du, eta prestakuntza berezia duen pertsona bat egongo da bezeroari zainketa pertsonalerako arreta osoa eskaintzeko.

Era berean, saltokiak eraldatzearekin, sorta ere zabaldu egingo da; batik bat, olioetan, pastetan, txokolateetan, kafeetan, teetan eta zainketa pertsonalerako produktuetan. Horrela, kontsumitzaileen aukera askatasuna handitzen da, eta bezeroek beren egiazko premiak bete ahalko dituzte.

108 lanposturen sorrera

"Zurekin" dendaren berrikuntzen artean, nabarmentzekoa da arreta pertsonalaren alde egin dela. *"Laguntza zerbitzua hobetu dugu urdaitegian, harategian eta arrandegian. 1.800 orduetik gorako prestakuntza eman zaie langileei, bezeroak hartzeko orduan gaitasun handiagoa izan dezaten"*, esan du EROSKIk Balearretan duen zuzendariak. Gainera, dendan ematen den arreta pertsonala pixkanaka garatuko da, eta, EROSKI Club txartelarekin, Bezero Bazkideentzat egokitutako eskaintza eta promozio handiagoak izango dira. Gaur egun, 413.000 baino gehiago dira klubeko bazkide Balearretan, eta dagoeneko ari dira gozitzen haren abantailaz. Orain berriki, EROSKI Cluben Urrezko txartela atera da, eta, hari esker, %4ko aurrezpen finko eta unibertsala dute bazkideek EROSKIren saltokietan egindako erosketa guztietan, baita gasolindegri sarean ere erregaia erostean.

Prezioen beherakada

Aipatutako aurrezpen horrez gain, egunerokoan erosten diren beste 4.000 produktutan baino gehiagotan jaitsi ditu kooperatibak prezioak, eta, hala, beste pauso bat eman du kontsumitzaileen aurrezpenaren aldeko konpromisoan. Bezeroak onurak ikusten ari diran EROSKIren prezio lehiakorragoekin; gainera, haien gainean, eskaintzak eta sustapen pertsonalizatuak aplikatu ahalko dira, Bezero Bazkideentzat, EROSKI Clubeko fidelizazio programari esker.

"EROSKIren prezio jaitsiara orokor honekin beste pauso bat eman dugu kontsumitzaileei dirua aurrezteko orduan eta, hala, baita ongizatean eta bizi kalitatean laguntzeko orduan ere. Gure hornikuntza katean hobekuntzak egin ditugulako jaitsi ditugu prezioak, eta gure bezeroek bere gustuko fabrikatzaile marken produktuak eta marka propiokoak aurkituko dituzte merkeago", ziurtatu du Alfredo Herraizek.

Arlo multikanala

EROSKI proposamen multikanala lantzen ari da, bezeroari erantzuteko berak nahi duenean, berak nahi duen bezala eta berak nahi duen lekuan. Horretarako, denda formatuak eta kanal digitalak ugaritzen ari da. *"Orain urtebete ez dela, EROSKIren*

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

aplikazio gaurkotua aurkeztu genuen, erabiltzaileek jarrai dezaten haren funtzionaltasun erosoez baliatzen", gogorarazi du Herraezek.

Ingurumen eragin txikiagoko dendak

EROSKIren belaunaldi berriko dendek berrikuntza teknologikoak ekartzen dituzte efizientzia energetikoa hobetzeko eta ingurumen eragina gutxitzeko; eta, gainera, leku bakoitzaren berezitasunak zaintzen dituzte. Berrikuntza horiek, saltokiaren diseinu klimatikoan eta hotzaren instalazioetan ikusten dira, baita argiztapen sistemetan ere, eta, horrekin batera, hondakinak gutxitu dira.

EROSKI Balearretan

EROSKIk 191 saltoki ditu Balearretan; batzuk, propioak, eta beste batzuk, frankiziak. Horretaz gainera, on line supermerkatu bakarra da, erosketak etxera eramaten dituen Balear uharte guztietan.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)